


Ura izateko eskubidea, osasunerako eskubide


Ura, osasuna eta bizi-kalitatea; hiru kontzeptu horiek lotuta daude. Edateko ura izatea eta hondakin-urak tratatzea ezinbestekoa da gizakion beharrak asetzeko eta bizitza duina bermatzeko.



Etxeko urik ez duten pertsonen mundu-banaketa (kontinenteka)



Saneamendurik ez duten pertsonen mundu-banaketa (kontinenteka)



- Afrika
- Asia
- Latinoamerika eta Karibe
- Europa

Iturria: WHO/UNICEF Joint Monitoring Programme, 2002




1.100 milioi pertsonak ez du urik etxean



2.400 milioi pertsonak ez du saneamendurik

Bizitzarako, osasunerako eta giza eskubideak gauzatu ahal izateko lehen baldintza edateko ura izatea da. Denok behar dugu edateko ura, baina munduko biztanle askorentzat arazo handia da egunero ur garbia eta edatekoa lortzea.



Ura ezinbestekoa da bizitzarako, bai eta higienarako eta zenbait gaixotasun ekiditeko ere: hala nola, malaria, hazteria eta beherakoa. Urrik ez izategatik edota ur kutsatua kontsumitzeagatik gaixo dauden pertsona gehienak bost urtetik beherako haurrak dira, eta herrialde pobreetan bizi dira.

Gizakiok 20-50 litro ur inguru behar dugu egunero pertsonako, eguneroko beharretarako: garbiketa, higiena...

«Osasuna duenak itxaropena du; itxaropena duenak dena du.» Arabiar atsotitza.

Pertsona guztiek ura eskuratzeko aukera dutela bermatzeko, alde zuzenetik uraren jatorrizko ingurumena zaindu behar da. Gainera, ur hori behar bezala tratatu behar da, erabiltzaileen eskura iristen den ura kontsumitzeko egokia dela bermatu ahal izateko.

Bestalde, inork ura alferrik gal ez dezan eta bere jardueren bidez kutsa ez dezan zaindu behar da, beste batzuek erabili ahal izan dezaten. Munduko pertsona guztiok dugu ura eskuratzeko eskubidea.

Testu hauetan oinarrituta: Ur Baliabideen Garapeneri buruzko Nazio Batuen Lehen Txostena: ura guztiztatu, ura bizitzarako, UNESCO-WWAPek 2003an ingelesez argitaratua.
 © ideia eta edukiena: Unescocat - Kataluniako UNESCO zentroa
 © jatorrizko edizioarena: Unescocat - Kataluniako UNESCO zentroa eta Territori i Paisatge Fundazioa
 © diseinuarena: Clic Trac, sccl.
 © argitalpen honena: UNESCO Etxea, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa, URA eta Eusko Jaurlaritzako Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza

<http://www.postersaigua.ca/>
<http://www.unescoetxea.org/>

